



■ ZINEA

'8 apellidos vascos' Biterin

Azken asteetako arrakasta ikusita, asteburu honetan ere 8 *apellidos vascos* pelikula jarriko dute Biterin. Ostiraletik astelehenera sei sesio izango dira. Sarrerak ostiraletik izango dira salgai, 21:30etatik aurrera. ■

■ GOIZ EGUZKI MAIATZAREN 1EKO EKITALDIAK

Hamalau abesti gaur, Goiz Eguzki eta Aloña abesbatzen eskutik

Zazpina abesti kantatuko dituzte, Goiz Eguzkiko egoitzan, 19:00etan hasita.

Bihar goiz osoko festa antolatu dute: meza, sari banaketak, erakusketa eta luntxa.

MAIATZAREN 1a egun handia izaten da Goiz Eguzkiko bazkideentzat. Bezperatik hasten dira ospakizunak, eta maiatzaren 1a eguerdira arte izaten da festa.

Abesbatzen emanaldirako kontzertu berezia antolatu dute aurten. Goiz Eguzkiko

Abesbatzak Oñatiko Aloña izango du lagun gaurko emanaldian. Zazpina kanta abestuko dituzte, etxeok hasita. Javier Zubimendi izango dute zuzendari eta Txefe Ormazabal bakarlarri. Abestiak: *Illunabarra*, *Alma Llanera*, *Angelitos negros*, *La golondrina*, *Azken*

dantza, *Un viejo amor* eta *Boga boga*. Aloña abesbatza Loli Ordokik zuzenduko du, eta Miguel Mari Guridi ariko da eskusoinuarekin. Kantatuko dituzten zazpi abestiak: *Ama*, *Santus*, *Uso zuria*, *Jeiki jeiki*, *Biok ezagutzean*, *La perla* eta *Vuela paloma blanca*.

Goiz osoko festa, bihar

Festak maiatzaren leian izango du segida. Mezarekin hasiko dute eguna, 11:00etan. Ondoren, karta eta kaleko joaketako sariak banatuko dituzte. Bazkideek egindako lanak ikusteko aukera ere izango da. Eta bukatzeko, luntxa. ■

■ PSE-EE

Botoa korreoz emateko aukera, Europako hauteskundeetan

Hernaniko alderdi sozialistak herritarrei gogoratu nahi die Europako Hauteskundeak direla datorren maiatzaren 25ean eta botatzea garrantzitsua dela: «dirua eta boterea agintetik kendu, eta pertsonak bere lekua izatea nahi badugu, bozkatu egin behar dugu». Maiatzaren 15a bitartean botoa korreoz eman litekeela gogoratu dute. Laguntza nahi dutenek Elkano 11ko egoitzatik pasa behar dute, astez, 16:00etatik 19:00etara; edo 943 55 04 29 telefonora deitu. ■

■ BIDEGORRIA

Karabel eta Portu lotzen dituen bidegorria, zabalik

Azken zati honi esker, bidegorrian barrena egin liteke Donostiatik Urnietarako ia bide osoa.

KARABELETIK Porturako bidea bidegorrian egin liteke, dagoeneko. Diputazioak egin du obra, eta kostua 265.000 euro ingurukoa izan da. Azken zati honi esker, Donostiatik Urnietarako bidea bidegorrian barrena egin liteke ia osorik; izan ere, Astigarraga eta Hernani arteko azken loturak bakarrik falta dira.

Bizikletaz edo oinez

Karabel eta Portu lotzen dituen bidegorriak 400 metro pasatsu ditu; eta 5 metro zabal. Bi metroko zabalera txirindularientzat da, eta beste bi metro oinezkoentzat. Zuhaitzak eta argiteria ere jarri dituzte. Diputazioak ondo bereizi nahi izan du Portu auzora iristen dagoen tartea, etxeen eta erreka artean pasatzen dena: 10cm igo du galtzada, eta abiadura gutxitzeko elementuak jarri ditu. Zona bateratua izango da hau, hortaz, ibilgailuak,

oinezkoak eta kotxeak leku beretik ibiliko dira.

Bidegorriaren bestelako hainbat ezaugarri

Argiteriari dagokionean, led motatako argiak jarri dituzte, 30 metro inguruko tartearrekin. Erorketak saihesteko neurriak ere hartu dituzte; bidea erreka bazterretik pasatzen den lekuetan egurrezko hesiak jarri dituzte. Zuhaitzak ere erain dituzte, Haltzak eta Astigarragak zehazki.

Edateko uraren sarea berritu da obra aprobetxatuta

Diputazioak eta Udalak hitzarmena sinatu zuten, bidegorriaren obrak aprobetxatu eta beste batzuk egiteko. Hala, Karabel eta Portu arteko edateko uraren sarea berritu da, Udalak finantzatuta. Obra honetan Udalak 47.600 euro inbertitu ditu. ■



Bost metroko zabalera du bidegorriak. 2m bizikletentzat dira eta beste 2 oinezkoentzat

■ AZOKA

Urbietako azoka ostiralean jarriko dute

Maiatzaren 1a da osteguna, jai eguna. Hori horrela, aste honetako azoka ostiralean jarriko dute, Urbietan kalean. ■

■ GARBIGUNEA

Ordutegian aldaketa, etzitik

Ostiraletik aurrera Hernaniko Garbiguneak ordutegi berria izango du. Astelehenetik ostiralerara: 09:30-13:00/15:30-18:30. Larunbatetan: 09:30-13:30. Eta igande eta jai egunetan itxita egongo da. ■

■ ERNAI

Manifestazio nazionalerako, txartelak

Ernaik manifestazio nazionala deitu du maiatzaren 3an, Bilbon. Hara joateko txartelak Garinen daude, 5 euroan. ■

YABEN ENGLISH SCHOOL

HERNANI

ikastegia

LEHENENGO BATXILLERGOA:
Trinkoa 4 astekoa. Datak: maiatzaren 26tik ekainaren 20ra.

ADIN GUZTIAK:
Trinkoa 4 astekoa. Datak: ekainaren 30etik uztailearen 25era.

SELEKTIBITATEA:
Trinkoa 2 astekoa. Datak: maiatzaren 19tik 20ra.

Kardaberaz 60 - 20120 Hernani - Gipuzkoa 943.331763

UDA 2014

Cambridge-ko AZTERKETA PRESTATZEA

Trinkoa 4 astekoa
Datak: ekainaren 20tik uztailearen 24ra.

MATRIKULA: gure Inlegetik Cambridge-ko matrikulatzeko azken eguna, ekainaren 15a.

2014

Cambridge ESOL
Exam Preparation Centre

BIKAIN

OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Ezizgo poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: **Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793 • **Gauetz**: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURALDIA
GAUR Euri kontuekin jarraituko dugu. Goizean egingo du zerbit. Arratsaldean atertzeko joera espero da. Tenperatura, berdin: Min.11° / Max.17°

BIHAR Lainoak egongo badira ere, ez da euri askorik espero. Tenperaturan ez da aldaketa askorik espero: Min.10° / Max.17° (euskalmet)

OLINPIADAK

Patinetan ibiltzen jakitea ez da nahikoa izango gaurkoan...

Hogeita bi taldek hartuko dute parte gaur, Olinpiadetako bigarren proban. Gaueko 21:30etan hasiko da patin proba, Portalondotik.

PATIN lasterketa mitiko, klasi-ko eta berria antolatu dute Olinpiadetako bigarren egunerako. Bost txandatan banatuta, aurretik zehaztutako ibilbidea egingo dute talde bakoitzak aukeratutako neska-mutilek. Nobedadea da aurten biek joan beharko dutela ekipamendu osoarekin: patinak, kaskoa, rodillarak... Txanda bakoitzeko irabazleak jokatu-ko du finala.



Aurten bi taldekideek eraman behar dituzte patinak.

Ibilbidean, probak

Lasterketa 21:30etan hasiko da, Portalondon. Kardaberaz kalean gora, bikotea elkarri lotuta joango da. Karkaban izango dute aurreneko proba: irin eta ur kuboan giltza bilatu. Giltza eskuetan dutela, Garineko norantza hartu eta Tilosetako

eskailera azpian kandadu bat ireki beharko dute. Hau irekita, begiak ixteko zinta bat eskuratuko dute eta bietako batek begiak tapatu beharko ditu. Kandadua ireki aurretik, galdera bati erantzun beharko diote, eta asmatzen ez duenak 15 segundu itxaron beharko

ditu aurrera egiteko. Tilosetako eskailera igo eta zig-zaga pasata, Plazara iritsiko dira. Beste galdera bati erantzun beharko diete bertan, eta gaizki erantzunez gero, aurreko penalizazio bera jasoko dute.

Handik aurrera, askatu eta bietako batek Portalondora itzuli beharko du, Kale Nagusitik behera.

Aruak eta penalizazioak

Esan bezala, galderak asmatzen ez dituen taldeari 15 segundu gehituko dizkiote. Bestalde, lasterketan joko zikina edo antzekorik egiten duenari 30 segundu gehituko dizkiote. Eta azkenik, bidean dauden proba ezberdinak egiten ez dituztenek 20 segunduko penalizazioa jasoko dute. ||

UDALA MEKANIKA IKASTAROA



Mekanikako aurreneko ikastaroa jaso duten neska-mutillak, Transpacarren.

Mekanikako oinarrizko klaseak maiatzean eta debalde

Bereziki emakumeei zuzendutako klaseak dira, nahiz eta gizonezkoek ere hartu dezaketen parte. Matrikulazioa egiteko: 943 55 18 08.

MEKANIKAKO oinarrizko ikastaroa antolatu du Udalak, debalde. Kotxeko gupila aldatu, argi bat pizten denean zer esan nahi duen jakin, olio aldatu, kotxeko paper bakoitza zertarako den jakin... Bereziki emakumei zuzendutako ikastaroa da, diskriminazio positiboa

egite aldera; hala ere, interesa duten guztiek eman dezakete izena: emakume zein gizon.

Hiru ikastaro antolatu ditu Udalak, data eta ordutegi ezberdinekin. Aurrenekoak arrakasta haundia izan du, eta orain da garaia, maiatzean zehar emango duten ikas-

taroan izena emateko. Hiru aste dira, maiatzaren 12tik 30era. Ordutegia: 16:30etatik 20:30etara. Animatzen direnek Transpacarrera deitu behar dute, 943 55 18 08ra eta Anderrengatik galdetu. Azkeneko ikastaroa, hirugarrena, ekainaren 2tik 20ra egingo dute. ||

LAB MAIATZAK 1

Manifestazioa bihar, Buruntzaldea mailakoa

Manifestazioa Plazatik aterako da, 12:00etan; 'Langileok erabaki, Euskal Herriak erabaki dezan'.

LANGILEEN Nazioarteko Egunea da bihar, Maiatzaren 1a. LAB sindikatuak eskualdeko manifestazioa deitu du Hernanin *Langileok erabaki, Euskal Herriak erabaki dezan* lemapean. Manifestazioa eguerdiko 12:00etan aterako da Plazatik eta eskualde mailakoa izango da.

«Lehen lortutakoa

berreskuratu behar dugu»

LAB sindikatuak azaldu duenez, krisiaren aitzakiarekin buelta eman zaio lortutako guztiari: «gauza asko lortu ziren borrokarekin, sufri-

menduarekin eta konfrontazioarekin. Gaur egun ere konfrontazioa behar da, negoziatioak itxi gabe, baina konfrontazioa. Gure indarra kalean dago eta lehen lortutakoa berreskuratu behar dugu borrokaren bitartez»

«Erabakitze eskubidearen garrantzia»

LABek dio, egungo egoerari aurre egiteko erabakitze eskubidea garrantzitsua dela: «erabakitze eskubidea langile mugimendura ekarri nahi dugu. Hortik lema: *Langileok erabaki, Euskal Herriak erabaki dezan*». ||

MENDIRIZ MENDI

Bedaio eta Zarateko lepoa, gaztetxoentzako plana

Mendiriz Mendi elkarteak egin du maiatzeko plana herriko gaztetxoentzako. Bedaio eta Zarateko lepoan barrena egingo dute buelta, hilaren 11n. Zailtasun gabeko ibilbidea dela azaldu dute, 3 ordu ingurukoa, hamaiketako barne. Goizeko 08:30etan abiatuko dira Atsegindegitik eta eguerdirako bueltan izatea espero dute.

Prezioa 2 eurokoa da gazteentzat eta 6 eurokoa helduentzat. Izena emateko Iturregi Plazako bulegotik pasa behar da, astelehen, ostegun edo ostiralean, 20:00etatik 21:00etara. Azkeneko eguna maiatzaren 9a da. ||

PILOTAKADAZ PILOTAKADA

Eskuz eta palaz binakako txapelketa jokatu da eta zabalik da izen ematea

Pilotakadaz pilotakada ekimenaren barruan, eskuz eta palaz binakako txapelketa jokatu da datorren maiatzaren 10ean. Parte hartu nahi dutenek zabalik dute izen ematea; Hernanin: Aker, Garin, Oindi, Rioja eta Zintzarri tabernetan; eta Ereñotzun, Irrintzi tabernan. ||

GURE ESKU DAGO

Postua bihar, Plaza Berrin

Gure Esku Dago ekimenak postua jarriko du bihar Plaza Berrin, ostegunero bezala. 16:30etatik aurrera jarriko dute eta bertan salduko dituzte martxoaren 8ko giza-katerako txartelak eta kamisetak. ||

ZUMITZA TT

Ines Arreitunandia bikain, Eibarren

Eibargo duatloiean izan ziren asteburuan Zumitzako triatletak. Emakumezkoetan, Ines Arreitunandia bikain aritu zen; bosgarren bukatu zuen 1:07:55eko denbora eginda. Gizonezkoetan emaitzak izan ziren: Kepa Pikabea 64garren, Iban Fernandez 71garren, Haritz Zubillaga 81garren eta Oier Cobo 99garren. ||

IRAGARKI MERKEAK

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iligo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)